

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Sentimenduz idatzitako pop-rocka

Urgabe talde bizkaitarrak urteak egin ditu Euskal Herriko plazetan barrena herriak alaitzen eta girotzen. Orain dela urte gutxi kantu propioak idazten hasi ziren eta oso erantzun ona izan zuten. Sorkuntza garatu eta barrenak hustu ostean kaleratutako

Edan bemendik lanak rockerako joera zabala erakutsi zuen. Orain bueltan datoz, *Isilean* izeneko lanarekin. Oinarrian pop-rock gitarroa egiten duten arren –REMetik Itoitzera, euskal doinuak baztertu gabe–, ñabardura asko antz eman daitezke beraien soinuan: hardcore melodikoa, metala, folka, funkya, brit-popa... Hitzei dagokionez, gehienek gabezia eta ezintasun egoerak lantzen dituzte, kasu batzuetan oso emaitza onak lortuz, poesia multzo dotoreak plazaratuz.



Isilean
Urgabe

OIHUKA

Iraupena: 37'34"
12,20 euro

AGUS BARANDIARAN - URGABE

«Luzaroan bertasioak egiten aritu ondoren, gure kantuei garrantzia ematea pentsatu genuen»

Ur gabe ez dago bizitarik. Zuretzat, Agus, zelakoa litzateke bizitza, Urgabe ez balego?

Urgabe izan da nire musika-eskola, berarekin ikasi eta garatu naiz musikari gisa.

Zer dauka desertuak hain erakargarria egiten zaizuna?

Desertua baino kontrasteak egiten zaizkit erakargarriak. Ideia polita zen hamar urtean musika munduan ur gabe ibili eta desertu batean laugarren diskoa islatzea.

Plazatan bertasioak jotzen aritzetik, areto eta gaztetxetan zuen kantuak, rockeroagoak, jotzera pasa zarete. Ez da ohikoena, ezta?

Ez, baina gauzak horrela etortzen dira. Bertasioak egiten oso gustura aritu gara urteetan, baina momentu batean gure kantuei garrantzia ematea pentsatu genuen; eta hortik aurrera *Edan bemendik* eta *Isilean* diskoak kaleratu ditugu.

Kanpotik ikusita, gainera, badirudi plazetan aritzea "eroso-goa" dela...

Zentzu askotan bai, baina norberaren barruan zure kantu propioen hazia garatzen joaten da; eta egun batean

ohetik altxatu eta horiek kanpora atera behar dituzula ohartzen zara.

Isilean, "Bihar kantatuko dizut abesti bat bezala esan ez duzun guztia". Gauza asko daukaguz isilean, noiz kantatzeko zain?

Gure pentsamenduak, ideiak, buruhaustea... dena islatzen dugu gure kantuen bitartez, inguruan gertatzen dena guk nola ikusten dugun jendeari kontatzen saiatzen gara... Barruak askatzeko bide bat da.

Diskoko abesti gehienen haria gabezia eta zerbaiten edo norbaiten hutsunea dira: bikotearena, semearena, aberriarena...

Hamar urtean, momentu on eta txarrak igaro ditu taldeak. Denetarik gertatzen da bidean. Baliteke gabezia hauek horren



erantzuna izatea.

...abesti bat ezik: *Hego haizea*. Hego haizeak jo al zuen Iker?

Lokalera ekarri eta hainbeste gabeziei kontrapuntua jartzeko, diskoan festa apur bat sartzea komeni zela pentsatu genuen. Bizitza era positiboan ere ikusten dugu.